# 2

# ATZERRIKO BIZTANLEAK

## POBLACIÓN EXTRANJERA

**Xabier Aierdi Urraza (*)**

(*) **Soziologia saileko irakasle titularra. Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).** Profesor titular del Departamento de Sociología. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Universidad del País Vasco (UPV).

## ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN

2. LA DIMENSIÓN INMIGRATORIA EN LA C.A. DE EUSKADI
   - 2.1. Población extranjera y distribución por comarcas
   - 2.2. Composición por orígenes
   - 2.3. Inmigración feminizada

3. DINÁMICAS DE INTEGRACIÓN
   - 3.1. Situación administrativa
   - 3.2. Situación laboral
   - 3.3. Ámbito educativo
   - 3.4. Ámbito residencial
   - 3.5. Proyecto migratorio

4. CONCLUSIONES

BIBLIOGRAFÍA

## AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. INMIGRAZIOAREN DIMENTSIOA EUSKAL AEn
   - 2.1. Atzerriko biztanleria eta eskualdeen araberako banaketa
   - 2.2. Osaera, jatorriaren arabera
   - 2.3. Inmigrazio feminizatua

3. INTEGRAZIO DINAMIKAK
   - 3.1. Administrazio egoera
   - 3.2. Lan egoera
   - 3.3. Hezkuntzaren eremua
   - 3.4. Bizilekuaren eremua
   - 3.5. Migrazio proiektua

4. ONDORIOAK

BIBLIOGRAFIA

## 1. INTRODUCCIÓN

En este capítulo se analiza el fenómeno de la población extranjera en la C.A. de Euskadi, y con ello se hace mención sólo a la que no dispone de nacionalidad española. En la primera parte se estudia el hecho de la inmigración extranjera en sus dimensiones más sociodemográficas y de ubicación y la segunda se refiere a algunas dinámicas de su integración social. Para la primera parte, hemos recurrido preferentemente a fuentes estadísticas de Eustat y para la segunda ha sido decisiva la edición de la Encuesta de Población Inmigrante Extranjera (EPIE) realizada por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco. Asimismo, nos hemos valido de datos de alguna otra investigación de Ikuspegi. Esta segunda parte requeriría mucha mayor profundización por la inagotable información que suministra la EPIE, pero éste no es el lugar ni el espacio propicio para emprenderla, y la única pretensión de este capítulo es ofrecer una pincelada sociológica sobre la población extranjera de la C.A. de Euskadi.

## 1. SARRERA

Kapitulu honetan, Euskal AEko atzerriko biztanleriaren fenomenoa aztertuko dugu. Atzerriko biztanleria esango diogu espainiar nazionalitatea ez daukanari. Lehenengo zatian, atzerriko inmigrazioa soziodemografiaren eta kokapenaren ikuspegietatik aztertuko dugu. Bigarrenean, aldiz, haren gizarteratze-dinamiketako batzuk aztertuko ditugu. Lehenengo zatirako, Eustaten estatistika iturriei lehentasuna eman diegu. Bigarren zatirako, berriz, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren Atzerriko Etorkinen Inkestaren edizioa erabakigarria izan da. Era berean, Ikuspegiren ikerketaren baten datuak erabili ditugu. Bigarren zati honek sakontasun gehiago eskatzen du, aipatutako inkesta informazio iturri agortezina delako, baina hau ez da gaian sakontzeko lekua. Kapitulu honen asmo bakarra, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko biztanleen zertzelada soziologiko batzuk eskaintzea da.

## 2. LA DIMENSIÓN INMIGRATORIA EN LA C.A. DE EUSKADI

La realidad inmigratoria ha podido tener unos perfiles inciertos hasta fechas recientes, pero se ha convertido en un hecho incontestable en la cotidianeidad de la C.A. de Euskadi. En una decena de años, ha pasado de tener 20.000 personas extranjeras entre su población a casi 142.000 a 1 de enero de 2010. En términos porcentuales, ha supuesto pasar del 1% al 6,5% de la población total. Incluso con este aumento, la C.A. de Euskadi dista de seguir la misma pauta que comunidades autónomas cercanas como la Rioja o la Comunidad Foral de Navarra o de tener porcentajes similares a los de España, pero sí mantiene similitudes con las comunidades autónomas del Cantábrico.

## 2. INMIGRAZIOAREN DIMENTSIOA EUSKAL AEn

Inmigrazioaren errealitateak ezaugarri ezezagunak izan ditu orain dela gutxira arte, baina gaur egun eguneroko errealitatea da, argi eta garbi, Euskal AEn. Hamarkada batean, 20.000 atzerritar izatetik ia 142.000 izatera igaro gara, 2010eko urtarrilaren 1ean. Ehunekotan, biztanleria osoaren % 1etik % 6,5era gehitu dira. Hazkuntza horrekin ere, Euskal AEk ez du, inondik ere, inguruko autonomi erkidegoen (Errioxa edo Nafarroako Foru Komunitatea adibidez) pauta bera, eta Espainiako portzentajeetatik urrun dago, baina Kantauriar itsasoko gainerako autonomi erkidegoen antza dauka.

*Población de la C.A. de Euskadi por nacionalidad. 01-01-2010*

**1**

***Euskal AEko biztanleria nazionalitatearen arabera. 2010-01-01***

| | **Guztira** Total | **Nazionalitatea /** Nacionalidad | | **Nazionalitatea (%) /** Nacionalidad (%) | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **Espainiarra** Española | **Atzerrikoa** Extranjera | **Espainiarra** Española | **Atzerrikoa** Extranjera |
| **Euskal AE /** C.A. de Euskadi | **2.169.038** | **2.027.221** | **141.817** | **93,5** | **6,5** |
| **Araba /** Álava | 317.016 | 288.381 | 28.635 | 91,0 | 9,0 |
| **Bizkaia** | 1.151.708 | 1.080.660 | 71.048 | 93,8 | 6,2 |
| **Gipuzkoa** | 700.314 | 658.180 | 42.134 | 94,0 | 6,0 |

**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Con base en los datos de la tabla 1, el mayor porcentaje de población extranjera se da en el Territorio Histórico de Álava, en donde casi uno de cada diez habitantes es de nacionalidad extranjera (9%). El porcentaje de población extranjera es menor en Bizkaia y Gipuzkoa, territorios en los que la tasa de población extranjera ronda el 6%.

1. taulako datu-basearekin, atzerriko biztanlerik gehienak Arabako lurralde historikoan daude. Bertan ia hamar biztanleko bat atzerrikoa da (% 9). Atzerritarren portzentajea txikiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan. Bi lurralde horietan, atzerriko biztanleriaren tasa % 6 ingurukoa da.

*Población de la C.A. de Euskadi por nacionalidad y su distribución por territorios históricos. 01-01-2010*

**2**

***Euskal AEko biztanleria, nazionalitatearen arabera, eta lurralde historikoen araberako banaketa. 2010-01-01***

| | **Guztira** Total | **Nazionalitatea /** Nacionalidad | | **Guztira** Total | **Nazionalitatea (%) /** Nacionalidad (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Espainiarra** Española | **Atzerrikoa** Extranjera | | **Espainiarra** Española | **Atzerrikoa** Extranjera |
| **Euskal AE /** C.A. de Euskadi | **2.169.038** | **2.027.221** | **141.817** | **100** | **100** | **100** |
| **Araba /** Álava | 317.016 | 288.381 | 28.635 | 14,6 | 14,2 | 20,2 |
| **Bizkaia** | 1.151.708 | 1.080.660 | 71.048 | 53,1 | 53,3 | 50,1 |
| **Gipuzkoa** | 700.314 | 658.180 | 42.134 | 32,3 | 32,5 | 29,7 |

**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Si se analiza cómo se reparten las poblaciones según nacionalidad por territorios históricos, se observa que más de la mitad de la población vasca reside en Bizkaia, más de tres de cada diez personas en Gipuzkoa y alrededor del 15% en Álava. Ahora bien, mientras que la población de nacionalidad española se comporta según parámetros similares a la población total, la población extranjera muestra matices de forma

Biztanleria nazionalitatearen arabera, lurralde historiko bakoitzean, nola banatzen den ikusiz gero, ikusiko dugu euskal biztanleriaren erdia baino gehiago Bizkaian bizi dela, hamar pertsonatik hiru baino gehiago Gipuzkoan, eta % 15 inguru Araban. Hala ere, espainiar nazionalitateko biztanleriak biztanleria osoaren antzeko parametroak dituen bitartean, atzerriko biztanlerian ñabardurak dauzka. Horrela, presenteago

que está más presente en Álava y ligeramente menos en Bizkaia y Gipuzkoa. Este dato de distribución por territorios explica asimismo su diferencial en el porcentaje de presencia.

Es este peso de Bizkaia y Gipuzkoa en la distribución de la población por territorios históricos y su respectivo porcentaje de población extranjera el que condiciona la tasa media de extranjería de la C.A. de Euskadi. Así, la tasa de personas extranjeras de Álava, que casi supera en tres puntos las de Bizkaia y Gipuzkoa, se rebaja en el global de la C.A. de Euskadi al 6,5%. En 1998, los tres territorios históricos partían de unos porcentajes muy similares, pero desde 2001 Álava ha ido alejándose de la media de los otros dos territorios y esa diferencia ha ido manteniéndose y creciendo. No es ajena a esta diferencia la mayor presencia de la construcción y del sector agrícola en Álava que en Bizkaia y Gipuzkoa. Esta desigual estructura de actividad ha influido tanto en las tasas como en la composición por territorios de la población extranjera. En el global de la C.A. de Euskadi, por peso porcentual de los distintos orígenes, el reparto se asemeja al de Bizkaia con ligeras variaciones.

dago Araban eta apur bat gutxiago Bizkaian eta Gipuzkoan. Lurraldeen araberako banaketaren datu horrek, era berean, presentziaren portzentajearen ezberdintasuna azaltzen du.

Biztanleria lurralde historikoen arabera banatzerakoan Bizkaiak eta Gipuzkoak daukaten pisu hori eta beren atzerriko biztanleriaren portzentajea dira Euskal AEko atzerritarren batez besteko tasa baldintzatzen dutenak. Horrela, Arabako atzerritarren tasa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa ia hiru puntutan gainditzen duena, Euskal AEko orokorrean % 6,5ra murriztu da. 1998an, hiru lurralde historikoek abiapuntu gisa oso portzentaje antzekoak zeuzkaten, baina 2001. urteaz geroztik Araba beste bi lurralde historikoen batezbestekotik urrundu da, eta ezberdintasun hori mantendu eta hazi da. Ezberdintasun horrengan eragina izan du Araban eraikuntzak eta nekazaritzak presentzia handiagoa izateak Bizkaian eta Gipuzkoan baino. Jardueraren egitura ezberdin horrek eragina izan du tasetan eta atzerriko biztanleriaren lurraldekako osaeran. Euskal AEko globalean, jatorrien ehunekoetako pisuan, banaketa Bizkaiarenaren antzekoa da, aldaketa txikiekin.

*Distribución de la población vasca por nacionalidad y territorio histórico (%), 2010*

**1**

***Euskal biztanleriaren banaketa nazionalitatearen eta lurralde historikoaren arabera (%), 2010***




**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Si se analiza cómo se ha llegado a estas cifras de población extranjera, conviene distinguir entre el inicio del nuevo ciclo inmigratorio, que coincidió con el cambio de siglo, en el que hubo unos crecimientos moderados; le siguieron unos volúmenes significativos entre 2001 y 2009, siendo espectacular el que tuvo lugar en 2007, con casi 19.000 personas. A partir de 2009 se ha hecho notar la crisis económica, y la incertidumbre que pudiera derivarse de una inserción relativamente garantizada ha reducido los stocks a cifras que oscilan entre las 5.000 y 6.500 personas extranjeras/año. A pesar de esta disminución, recordamos que en esta última fase la C.A. de Euskadi ha experimentado los incrementos interanuales más altos del Estado, porque si bien su estructura de actividad era menos porosa para la incorporación de volúmenes similares a los que se han conocido en otras autonomías, es ahora más segura para una inserción menos volátil ante el cambio del

Atzerritarren kopurua nola handitu den hainbeste aztertzen baldin badugu, ondokoak bereiztu behar ditugu: inmigrazio ziklo berriaren hasiera (mende aldaketarekin batera gertatu zena), hazkunde moderatuekin, eta 2001etik 2009ra arteko kopuru handiak, bereziki 2007. urtean gertatu zena (19.000 pertsona). 2009. urtetik aurrera, krisi ekonomikoa nabarmendu da. Erlatiboki bermatutako gizarteratzea eduki ahal izatearen zalantzak kopuruak murriztu ditu: 5.000 eta 6.500 atzerritar bitartean urtean. Gutxipen hori gorabehera, gogorarazi behar dugu azken fase honetan Euskal AEk urte arteko gehikuntzarik handienak izan dituela estatu osoan. Bere jardueraren egitura ez zen hain porotsua beste autonomia batzuen antzeko bolumenak bereganatzeko, baina gaur egun seguruagoa da gizarteratzea bermatzeko, ziklo ekonomikoaren aldaketaren aurrean. Euskal AEko jardueraren egiturak ez du ahalbideratzen etorkinen etorrera masiboa, lan-esku intentsi-

ciclo económico. La estructura de actividad de la C.A. de Euskadi ni es una estructura que permite la llegada masiva de personas inmigrantes, porque hay poco espacio para actividades de mano de obra intensiva, ni es una estructura que impedirá un goteo consolidado con base en sus necesidades laborales. La aportación de la población extranjera ha sido decisiva en el mantenimiento de la población vasca, ya que en la última década la pérdida de población autóctona se ha contrarrestado gracias a la llegada de población extranjera y además durante todo el periodo ha ido madurando su propio modelo migratorio, muy centrado en la inducción de mano de obra femenina de personas latinoamericanas.

boko jardueretarako tarte gutxi dagoelako. Aldi berean, egitura horrek ez du galaraziko jario kontsolidatu bat egotea, lanbeharrizanen arabera. Atzerritarren ekarpena erabakigarria izan da euskal biztanleria mantentzeko, azken hamarkadan bertako biztanleriaren galera atzerriko biztanleriaren etorrerarekin konpentsatu delako. Gainera, denboraldi horretan guztian bere inmigrazio eredua sortu du, Latinoamerikako emakumezko langileetan espezializatua.

Asimismo, sobre el volumen de personas de origen extranjero, a la cifra apuntada de 142.000 personas extranjeras empadronadas con nacionalidad no española, la mayoría nacida en el extranjero y una parte que despunta y nacida en algún municipio de España o en la misma C.A. de Euskadi, se le deben añadir aquellas personas que han accedido a la nacionalidad española para calcular la importancia que el fenómeno inmigratorio extranjero ha adquirido estos últimos años. En este sentido, no sería nada descabellado añadir otras 30.000 personas a las que todavía constan como extranjeras. La mayoría de estas personas que ya han accedido a la nacionalidad española son de nacionalidades latinoamericanas porque, en éste como en otros aspectos, las políticas de naturalización siempre *prefieren* a unas nacionalidades sobre otras, sea por lazos afectivos y culturales o sea por mera instrumentalización laboral. De hecho, la población latinoamericana, en tanto *preferida*, dispone de unas condiciones de nacionalización menos restrictivas. En suma, es probable que el número de personas de *origen extranjero* se sitúe como ha señalado la Encuesta de Población Inmigrante Extranjera (EPIE, 2010) en alrededor de 180.000 personas y que, en ese caso, la tasa de población de *origen extranjero* supere holgadamente el 8% en el conjunto de la C.A. de Euskadi.

Era berean, atzerriko pertsonen bolumenari dagokionez, Espainiatik kanpoko nazionalitatea daukaten erroldatutako 142.000 atzerritarrez gain, gehienak atzerrian jaioak eta gero eta gehiago Espainiako udalerriren batean edo Euskal AEn bertan jaioak, espainiar nazionalitatea eskuratu dutenak zenbatu behar ditugu, etorkinen fenomenoak azken urteetan jaso duen garrantzia kalkulatzeko. Zentzu horretan ez litzateke erokeria beste 30.000 pertsona gehitzea gaur egun atzerritartzat jotzen direnei. Espainiar naziotasuna jaso duten pertsona horietako gehienak Latinoamerikatik etorriak dira. Alderdi honetan, beste batzuetan bezala, naturalizazio politikek beti nazionalitate batzuk *hobesten dituzte* beste batzuen gainetik, izan lotura afektibo eta kulturalengatik, izan lanaren beharragatik. Hain zuzen ere, Latinoamerikako biztanleriak, *lehenetsia* den aldetik, nazionalizatzeko baldintza hobeak ditu. Oro har, baliteke *atzerriko* pertsonen kopurua 180.000 pertsona ingurukoa izatea, Atzerriko Etorkinen Inkestan azaldu denez, eta kasu honetan *atzerriko* biztanle tasa % 8 baino gehiago izatea Euskal AE osoan.

Es igualmente reseñable que el asentamiento de la población extranjera está siendo administrativamente cada vez más regular. Si comparamos las cifras de las personas empadronadas con las que disponen de permiso de residencia, se ve que si en los inicios del periodo contemplado había una fuerte regularidad, de forma que prácticamente todas las personas estaban en situación regular, porque todavía el hecho inmigratorio no era políticamente relevante, la tasa de regularidad descendió al 48% en 2004, y la irrregularidad se transformó en norma. Esta situación coincidió con los años de mayores restricciones en políticas de inmigración en el segundo gobierno de José María Aznar, pero desde entonces tras la regularización de 2005 y la incorporación de Rumanía a la Unión Europea, la tasa de regularidad ha ido creciendo paulatinamente hasta el 80% a 1 de enero de 2011, según la relación entre los datos de empadronamiento y de permisos de residencia. Este crecimiento en la regularidad indica la transición de una primera época de inmigración, en la que cabe pensar que la lógica dominante es la de la acogida, a una segunda, que corresponde a lógicas de asentamiento duradero y gestión de la inmigración, y de la diversidad (gráfico 2).

Nabarmengarria da, halaber, atzerriko biztanleak hemen finkatzea gero eta erregularragoa dela. Erroldatutako pertsonen kopurua eta bizileku-baimena daukaten pertsonen kopurua erkatzen baditugu, aztertutako denboraldiaren hasieran erregulartasun handia zegoen: ia pertsona guztiak egoera erregularrean zeuden, artean inmigrazioa ez zelako politikoki esanguratsua. Baina 2004. urtean erregulartasun tasa % 48 gutxitu zen, eta irregulartasuna arau bihurtu zen. Egoera hau inmigrazio politiken murrizpen handienekin batera gertatu zen, José María Aznarren bigarren agintaldian. Baina ordutik hona, 2005eko erregularizazioaren ondoren eta Errumania Europar Batasunean sartu ondoren, erregulartasun tasa modu mailakatuan gehitu da: 2011ko urtarrilaren 1ean % 80koa da, erroldatze datuen eta bizileku-baimenen datuen artek harremanaren arabera. Erregulartasunaren gehikuntza honek adierazten du inmigrazioaren lehenengo aroa amaitu dela (esan dezakegu orduko logika nagusia etorkinak hartzea zela) eta bigarrena hasi dela, finkatze iraunkorreko logikei eta inmigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketari dagokiena (2. grafikoa).

El gráfico señala que la tasa de regularidad ha experimentado una evolución en forma de U, aunque todavía no ha llegado a cifras similares a las iniciales. Pero la reducción de flujos que se está experimentando facilita la regularización, porque cuando los flujos anuales son más grandes, siempre se genera inevitablemente bolsas igualmente grandes de irregularidad, ya que gran parte del acceso no se realiza por vías regulares ni por reagrupación familiar, sino aprovechando

Grafikoak adierazten du erregulartasun tasak U formako bilakaera izan duela, baina oraindik ez da iritsi hasierako kopuruen antzeko kopuruetara. Baina ikusten ari garen fluxu murrizketak erregularizazioa mesedetzen du: urteko fluxuak handiagoak direnean, beti irregulartasun poltsa handiak sortzen dira, halabeharrez, sarreretako asko ez direlako egiten bide arruntetatik edo familia birbatzeko, baizik eta legearen hutsuneak aprobetxatuz, adibidez turistentzat bisatuak erabi-

lagunas legales, como la de los visados en calidad de turista. En consecuencia, unos flujos menores generan por un lado menores tasas de irregularidad y, además, por otro, permiten que el peso de los ya asentados sea mayor en el volumen total de personas extranjeras. En consecuencia, actualmente, no estamos pues ante una población que es siempre nueva, sino ante la creciente preponderancia de la ya establecida.

liz. Ondorioz, fluxu txikiagoek, batetik irregulartasun tasa txikiagoak sortzen dituzte, eta bestetik, finkatuta daudenen pisua atzerritarren bolumen osoan handiagoa izatea ahalbideratzen dute. Ondorioz, gaur egun, ez gaude beri berritzen den biztanleria baten aurrean, baizik eta finkatuta dagoen biztanleriaren nagusitasunaren aurrean.

*Evolución en la C.A. de Euskadi de las tasas de extranjería y regularidad y de la distribución por años del stock total e incremento interanual de la población extranjera (%)*

2

***Atzerritar eta erregulartasun tasen eta atzerriko biztanleriaren stock osoaren urtez urteko banaketaren bilakaera eta atzerritar biztanleriaren urte arteko gehikuntza Euskal AEn (%)***




**Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuekin.**
Fuente: Elaboración propia a partir de datos del Ministerio del Interior.

## 2.1. Población extranjera y distribución por comarcas

Si descendemos a la presencia de la población extranjera por comarcas de la C.A. de Euskadi, el mayor porcentaje de población extranjera se da en la de la Llanada Alavesa, en la que llega casi al 10% (gráfico 3 y tabla 3). En esta comarca se sitúa Vitoria-Gasteiz. Le siguen la comarca de la Rioja Alavesa y a continuación dos guipuzcoanas: Bajo Bidasoa y Goierri. En el Bajo Bidasoa es fundamental su cercanía con la frontera francesa. En cambio, en el Goierri existe un porcentaje inducido por sus necesidades de mano de obra de mayor cualificación y que ha sido promovido desde sus agencias locales. La comarca vizcaína con mayor porcentaje de población extranjera es la de Markina-Ondarroa, en la que es fundamental su ligazón con la economía pesquera, lo que a su vez explica la presencia de mayor volumen de población de origen subsahariano en esta comarca. Como puede observarse finalmente, el resto de comarcas ronda por arriba o por debajo la media de la C.A. de Euskadi y las comarcas con menor proporción de personas extranjeras son el Alto Deba, Cantábrica Alavesa y Tolosa.

## 2.1. Atzerriko biztanleria eta eskualdeen araberako banaketa

Atzerriko biztanleriaren presentzia Euskal AEko eskualdeen arabera aztertzen badugu, atzerriko biztanleriaren portzentajerik handiena Arabako Lautadan dago, ia % 10ekoa (3. grafikoa eta 3. taula). Eskualde honetan dago Vitoria-Gasteiz. Bigarren eskualdea Arabako Errioxa eta gero Gipuzkoako bi daude: Bidasoa Beherea eta Goierri. Bidasoa Beherean, frantziar mugatik hurbil egotea funtsezko faktorea da. Goierrin, ordea, kualifikazio handiagoko lan-eskuaren beharrizanak (tokiko agentziek bultzatu dutena) sorrarazitako portzentajea da. Bizkaian, atzerriko biztanlerik gehien daukan portzentajea Markina-Ondarroa da. Horretarako, arrantza funtsezkoa da. Horregatik dago Saharatik beherako pertsona gehiago eskualde honetan. Azkenik, ikus dezakegunez, gainerako eskualdeak Euskal AEko batezbestekoaren gainean edo azpian daude. Atzerritar proportziorik txikienak dauzkaten eskualdeak Deba Goiena, Kantauri Arabarra eta Tolosa dira.




**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

*Población y su distribución según nacionalidad por comarcas y tasa de extranjería. 2010* 3 ***Populazioa eta beraren banaketa nazionalitatearen arabera, eskualdez eskualde, eta atzerritar tasa. 2010***

| | **Nazionalitatea /** Nacionalidad | | | **Biztanleriaren banaketa nazionalitatearen arabera (%)** Distribución de la población por nacionalidad (%) | | | **Atzerritarren %** % población extranjera |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Guztira** Total | **Espainiarra** Española | **Atzerrikoa** Extanjera | **Guztira** Total | **Espainiarra** Española | **Atzerrikoa** Extanjera | |
| **Arabako Haranak /** Valles Alaveses | 5.905 | 5.514 | 391 | 0,3 | 0,3 | 0,3 | 6,6 |
| **Arabako Lautada /** Llanada Alavesa | 253.511 | 228.658 | 24.853 | 11,7 | 11,3 | 17,5 | 9,8 |
| **Arabako Mendialdea /** Montaña Alavesa | 3.203 | 3.007 | 196 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 6,1 |
| **Arratia-Nerbioi /** Arratia-Nervión | 23.201 | 21.865 | 1.336 | 1,1 | 1,1 | 0,9 | 5,8 |
| **Bidasoa Beherea /** Bajo Bidasoa | 76.384 | 70.621 | 5.763 | 3,5 | 3,5 | 4,1 | 7,5 |
| **Bilbo Handia /** Gran Bilbao | 874.879 | 820.429 | 54.450 | 40,3 | 40,5 | 38,4 | 6,2 |
| **Deba Beherea /** Bajo Deba | 54.590 | 51.558 | 3.032 | 2,5 | 2,5 | 2,1 | 5,6 |
| **Deba Goiena /** Alto Deba | 61.554 | 58.703 | 2.851 | 2,8 | 2,9 | 2,0 | 4,6 |
| **Donostia /** Donostia-San Sebastián | 321.656 | 302.573 | 19.083 | 14,8 | 14,9 | 13,5 | 5,9 |
| **Durangaldea /** Duranguesado | 96.787 | 90.927 | 5.860 | 4,5 | 4,5 | 4,1 | 6,1 |
| **Enkarterri /** Encartaciones | 31.447 | 29.747 | 1.700 | 1,4 | 1,5 | 1,2 | 5,4 |
| **Arabar Errioxa /** Rioja Alavesa | 11.594 | 10.576 | 1.018 | 0,5 | 0,5 | 0,7 | 8,8 |
| **Gernika-Bermeo** | 45.676 | 42.763 | 2.913 | 2,1 | 2,1 | 2,1 | 6,4 |
| **Goierri** | 67.116 | 62.226 | 4.890 | 3,1 | 3,1 | 3,4 | 7,3 |
| **Gorbeia inguruak /** Estribac. del Gorbea | 8.556 | 8.068 | 488 | 0,4 | 0,4 | 0,3 | 5,7 |
| **Kantauri Arabarra /** Cantábrica Alavesa | 34.247 | 32.558 | 1.689 | 1,6 | 1,6 | 1,2 | 4,9 |
| **Markina-Ondarroa** | 26.406 | 24.575 | 1.831 | 1,2 | 1,2 | 1,3 | 6,9 |
| **Plentzia-Mungia** | 53.312 | 50.354 | 2.958 | 2,5 | 2,5 | 2,1 | 5,5 |
| **Tolosa** | 46.819 | 44.551 | 2.268 | 2,2 | 2,2 | 1,6 | 4,8 |
| **Urola Kosta /** Urola Costa | 72.195 | 67.948 | 4.247 | 3,3 | 3,4 | 3,0 | 5,9 |
| **Guztira /** Total | **2.169.038** | **2.027.221** | **141.817** | **100** | **100** | **100** | **6,5** |

**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Los porcentajes anteriores guardan relación con la distribución por comarcas de la población vasca, de forma que la comarca que sin lugar a dudas más destaca por mayor proporción de absorción de personas extranjeras que autóctonas sobre su respectivo total es la de la Llanada Alavesa, en donde reside el 11,3% del total de la población autóctona pero el 17,5% del total de la extranjera. La misma pauta pero con menor intensidad es la que siguen las comarcas del Bajo Bidasoa y Goierri. En todo el resto de comarcas, así como en las otras dos que contienen la capital de su respectivo territorio –Gran Bilbao y Donostia-San Sebastián–, sucede lo contrario: contienen más población autóctona que extranjera (gráfico 4).

Aurreko portzentajeek zerikusia dute euskal biztanleriaren eskualdez eskualdeko banaketarekin. Horrela, bere biztanleria osoan hemengo pertsonak baino atzerriko pertsona gehiago proportzio handienean bereganatzen dituen eskualdea, zalantzarik gabe, Arabako Lautada da. Bertan hemengo biztanleen % 11,3 bizi da, baina atzerritarren % 17,5. Pauta bera, baina intentsitate txikiagoarekin, gertatzen da Bidasoa Beherea eta Goierri eskualdeetan. Gainontzeko eskualdeetan, eta bere lurraldeko hiriburua daukaten beste bi eskualdetan (Bilbo Handia eta Donostia), aurkakoa gertatzen da: hemengo biztanleria gehiago daukate atzerrikoa baino, 4. grafikoa.

*Distribución de las poblaciones autóctona y extranjera por comarcas (%). 2010*

4

***Hemengo eta atzerriko biztanleen banaketa eskualdez eskualde (%). 2010***




**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Ahora bien, en buena lógica, el mayor volumen de población extranjera se asienta en el Gran Bilbao: cuatro de cada diez personas extranjeras residentes en la C.A. de Euskadi se encuentran empadronadas en esa comarca. En el conjunto de las tres comarcas capitalinas residen dos de cada tres personas residentes en la C.A. de Euskadi (66,9%), así como siete de cada diez personas extranjeras (69,4%).

Si estimáramos una tasa de *intensidad inmigratoria*, multiplicando la tasa de la comarca por el porcentaje de inmigración que acoge o se ubica en la comarca, sin lugar a dudas la mayor intensidad correspondería a la de la Llanada Alavesa.

Hala eta guztiz ere, logikoa denez, biztanleria atzerritarrik gehiena Bilbo Handian bizi da: Euskal AEn bizi diren hamar atzerritarretik lau eskualde honetan daude erroldatuta. Euskal AEn bizi diren hiru pertsonetatik bi hiru hiriburu-eskualdeetan bizi dira (% 66,9), eta hamar atzerritarretik zazpi (% 69,4).

*Migrazio-intentsitatearen* tasa ateratzen badugu, eskualdeko tasa eta eskualde horretan dagoen portzentajea biderkatuz, zalantzarik gabe intentsitaterik handiena Arabako Lautadak dauka.

## 2.2. **Composición por orígenes**

Para comenzar, podemos, en primer lugar, integrar la C.A. de Euskadi en la modalidad de composición de orígenes que caracteriza a toda la cornisa cantábrica, que posee menores tasas de inmigración, muy probablemente porque dispone de una estructura laboral menos estacional que la de otras zonas de España, y en la que no ha lugar la mano de obra intensiva en determinados sectores de actividad (construcción, agricultura). Esta menor porosidad laboral y determinadas características demográficas como la del envejecimiento de la población inducen inmigraciones de origen latinoamericano, para que afronten la cobertura de empleos relacionados con el cada vez más amplio ámbito de los cuidados, con los servicios personales, los trabajos domésticos y la hostelería. En el caso vasco, junto con la totalidad de la cornisa cantábrica, así como la Comunidad Autónoma de Madrid, cuatro personas de cada diez vienen de Latinoamérica. Otra de las pautas diferenciales de la C.A. de Euskadi, en segundo lugar, con respecto a otras comunidades autónomas o con respecto al total de España, es la menor presencia de personas inmigrantes de la Unión Europea, que si en la inmigración llegada a España supone el 41,7%, en la C.A. de Euskadi asciende al 28%.

En detalle, por territorios y composición, la presencia de población europea es mayor en Gipuzkoa (36%); la de población africana en Álava (33%) y la de la americana en Bizkaia (50%). La asiática presenta porcentajes similares por territorios históricos. Estas pequeñas diferencias nos indican que hay factores locales que introducen variaciones de cierto interés: la cercanía de Gipuzkoa con Francia y Europa supone ese mayor porcentaje de comunitarios en este territorio histórico. La población magrebí y africana en general ha encontrado mayores oportunidades laborales en Álava y, finalmente, Bizkaia ha especializado su demanda en la población latinoamericana (gráfico 5).

## 2.2. **Osaera, jatorriaren arabera**

Hasteko, lehenik eta behin, Euskal AE kantauriar erlaitz osoaren jatorri-osaerako multzoan sar dezakegu. Zona honek inmigrazio tasa txikiagoak dauzka, seguruenik bertako lan-egitura ez dagoelako urtaroei hain lotuta, Espainiako beste zona batzuetan bezala. Lan-porotasun txikiago honek eta ezaugarri demografiko jakin batzuek, adibidez biztanleriaren zahartzeak, Latinoamerikako inmigrazioa erakartzen dute, zaintzaren eremuan (gero eta handiagoa dena), zerbitzu pertsonaletan, etxeko lanetan eta ostalaritzan lan egin dezaten. Euskal kasuan, kantauriar erlaitz osoan eta Madrilgo Komunitate Autonomoan bezalaxe, hamar pertsonatik lau Latinoamerikatik datoz. Beste autonomi erkidego batzuen aldean edo Espainia osoaren aldean, Euskal AEko beste pauta ezberdin bat, bigarrenik, Europar Batasuneko etorkinen presentzia txikiagoa da. Horiek, Espainiara iristen diren etorkinen % 41,7 dira, baina Euskal AEra etortzen direnen % 28.

Zehaztuz, lurraldearen eta osaeraren arabera, Europako biztanleriaren presentzia handiagoa da Gipuzkoan (% 36), Araban afrikarra (% 33) eta amerikarra Bizkaian (% 50). Asiako biztanleriak antzeko portzentajeak dauzka lurralde historiko guztietan. Ezberdintasun txiki horiek erakusten digute aldakuntza interesgarriak sortzen dituzten tokiko faktoreak daudela: Gipuzkoa Frantziatik eta Europatik hurbil egoteak EBko biztanle gehiago erakartzen ditu lurralde historiko honetara. Magrebtarrek eta afrikarrek oro har lan-aukera gehiago aurkitu dituzte Araban. Azkenik, Bizkaiak Latinoamerikako biztanleria Latinoamerikako biztanlerian espezializatu du eskaera, 5. grafikoa.

*Composición de la población extranjera de los territorios históricos por áreas geográficas de nacionalidad (%), 2011*

5

***Lurralde historikoetako atzerriko biztanleriaren osaera, nazionalitateko eremu geografikoen arabera (%), 2011***




**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Por eso, si se analiza la composición de las comarcas (gráfico 6) según el continente de origen de la población extranjera se observan diferencias significativas. La población europea es mayoría en las comarcas de Valles Alaveses, Goierri, Gernika-Bermeo y Encartaciones. Es muy importante la presencia de población africana (subsahariana o magrebí) en Markina-Ondarroa, Duranguesado, Rioja Alavesa, Llanada Alavesa y Cantábrica Alavesa. La americana sobresale en Plentzia-Mungia, Gran Bilbao, Bajo Deba, Alto Deba y Donostia-San Sebastián. Finalmente, la población asiática sobresale en el Alto Deba, como consecuencia del peso de la población pakistaní, y sobrepasa la media de la comunidad en las comarcas del Gran Bilbao y Urola Costa.

Horregatik, eskualdeen osaera aztertuz gero (6. grafikoa), atzerriko biztanleriaren jatorrizko kontinentearen arabera, ezberdintasun adierazgarriak daude. Europako biztanleria gehiengoa da Arabako Haranetan, Goierrin, Gernika-Bermeon eta Enkarterrin. Oso garrantzitsua da Afrikako biztanleriaren presentzia (Saharatik beherakoa edo Magrebekoa) Markina-Ondarroan, Durangaldean, Arabako Errioxan, Arabako Lautadan eta Kantauri Arabarrean. Amerikarra Plentzia-Mungian, Bilbo Handian, Deba Beherean, Deba Goienan eta Donostian nabarmentzen da. Azkenean, Asiako biztanleria Deba Goienean nabarmentzen da, Pakistango biztanleriaren pisuaren ondorioz, eta erkidegoaren batezbestekoa gainditzen du Bilbo Handian eta Urola Kostan.

*Comarcas de la C.A. de Euskadi según áreas de nacionalidad extranjera (%), 2010*

**6**

***Euskal AEko eskualdeak atzerriko nazionalitateko eremuen arabera (%), 2010***




**Iturria: Geuk egina, Biztanleen Udal Inkestan oinarrituta, Eustat, 2010.**
Fuente: Elaboración propia a partir de la Encuesta Municipal de Habitantes, Eustat, 2010.

Con respecto a las comarcas capitalinas, en la comarca del Gran Bilbao residen cuatro de cada diez personas autóctonas, el 38,4% de la población extranjera total, así como el 45% de todos los latinoamericanos de la C.A. de Euskadi, el 44% de los asiáticos, pero es menor la población africana (34%) o europea (27%) que acoge. En la Llanada Alavesa, donde reside el 17,5% de las personas extranjeras, igualmente lo hace el 33% de toda la población africana empadronada en la C.A. de Euskadi. Finalmente, en la comarca de Donostia-San Sebastián no hay datos que se alejen demasiado de su peso sobre el total de la C.A. de Euskadi, pero asume un porcentaje mayor de población extranjera europea y americana.

Hiriburu-eskualdeei dagokienez, Bilbo Handian hemengo hamar biztanletik lau bizi dira, atzerritar guztien % 38,4, eta Euskal AE osoko latinoamerikar guztien % 45 eta asiarren % 44. Baina afrikarren biztanleria (% 34) eta europarren biztanleria (% 27) txikiagoa da. Arabar Lautadan, atzerriko pertsonen % 17,5 bizi dira. Euskal AEn erroldatutako afrikarren % 33 ere hemen bizi da. Azkenik, Donostiako eskualdean datuak Euskal AEko datuen antzekoak dira, baina Europako eta Amerikako atzerritar portzentaje handiagoa hartzen du.

Como ya se ha dicho, son las comarcas en las que se inserta la capital del territorio histórico las que de alguna forma condicionan las características de cada respectivo territorio y también las de la C.A. de Euskadi. Si nos adentramos en las capitales, en primer lugar se aprecia que la mayor tasa de extranjería corresponde a Vitoria-Gasteiz, que en 2010 llegaba al 10%, mientras que Bilbao se quedaba a medio camino con el 8% y Donostia-San Sebastián poseía una tasa del 6,8%. Por características de composición de su inmigración y dada la macrocefalia de Vitoria-Gasteiz en Álava, lo que es característico de la capital lo es indefectiblemente del territorio, por lo que un tercio de sus inmigrantes proviene del Magreb o de África, un poco más de otro tercio de Latinoamérica, un 23% de Europa y un 6,1% de Asia. En Vitoria-Gasteiz, una de cada cuatro personas extranjeras es magrebí. Con respecto a Bilbao, la composición es mayoritariamente americana, proviene de sus nacionalidades casi el 54% de su población extranjera, el 21,5% es población africana, dividida a partes casi iguales entre personas subsaharianas y magrebíes, un 17,2% es europea, de la que gran parte es población rumana (8% del total de Bilbao) y finalmente casi un 7% de origen asiático. Finalmente, Donostia-San Sebastián tiene el menor porcentaje de población extranjera, pero al igual que en Bilbao la mayoría es proveniente del continente americano (52,1%), seguida de la población originaria de Europa (32,7%), con una menor presencia de población africana, sobre todo subsahariana, y la población asiática asciende al 5,4%.

Esan dugunez, lurralde historikoaren hiriburua dagoen eskualdeak dira nola edo hala lurralde bakoitzaren eta Euskal AEren ezaugarriak baldintzatzen dituztenak. Hiriburuetan sartzen bagara, lehenik eta behin ikusiko dugu atzerritar tasarik handiena Gasteizi dagokiola. 2010. urtean % 10era iristen zen. Bilbo, ordea, erdibidean dago, % 8arekin, eta Donostiak % 6,8ko tasa dauka. Inmigrazioaren osaeraren ezaugarrien arabera eta Gasteizek Araban daukan garrantzia ikusita, hiriburuaren ezaugarriak lurraldearenak ere badira, nahitaez. Horregatik, etorkinen herena Magrebetik edo Afrikatik datoz, beste heren apur bat handiagoa Latinoamerikatik, % 23 Europatik eta % 6,1 Asiatik. Gasteizen, atzerriko lau pertsonatik bat magrebtarra da. Bilbori dagokionez, gehienak amerikarrak dira. Haien nazionalitateetatik datoz atzerriko biztanleriaren ia % 54, % 21,5 afrikarrak dira, Saharatik beherakoen eta magrebtarren artean zati ia berdinetan banatuta, % 17,2 europarra da (haietatik asko errumaniarrak dira, Bilboko osotasunaren % 8), eta azkenik, ia % 7 asiarrak dira. Azkenik, Donostian dago atzerritarren portzentajerik txikiena, baina Bilbon bezala, gehienak Amerikatik datoz (% 52,1). Gero europarrak datoz (% 32,7), eta afrikarrak gutxiago dira (batez ere Saharatik beherakoak). Asiarrak % 5,4 dira.

Ahora bien, la composición por áreas de nacionalidad de la inmigración extranjera de la C.A. de Euskadi está experimentando un nuevo reajuste. Si a mediados de la década pasada casi el 50% de la población empadronada en la C.A. de Euskadi era originaria de Latinoamérica, en la actualidad este porcentaje está descendiendo en peso relativo, como consecuencia del proceso de naturalización y adquisición de nacionalidad española por parte de aquellas nacionalidades de esta área que se asentaron al comienzo de este nuevo ciclo de inmigración, con lo que en los próximos años previsiblemente este descenso relativo irá intensificándose. Ahora bien, se seguirá manteniendo su aporte absoluto. En esta nueva fase de crisis económica e incertidumbre social los flujos de inmigración se ajustarán a la baja, con lo que la naturalización de personas latinoamericanas quizás tenga un ritmo más elevado, o al menos se acompase cada vez más, al nuevo asentamiento. Ahora bien, la naturalización reduce tasa de extranjería, pero no de diversidad. Sobre esta cautela, vemos que la población magrebí está ganando terreno tanto en términos absolutos como en relativos, lo contrario de lo que ocurre con la Unión Europea inicial (UE-15), mientras que los comunitarios más recientes, Rumanía sobre todo, está ampliando su peso sobre el total y, además de ser la nacionalidad más importante

Halere, Euskal AEko atzerriko inmigrazioaren osaera, nazionalitate eremuen arabera, aldatzen ari da. Joan den hamarkadaren erdialdean Euskal AEn erroldatutako biztanleen ia % 50 Latinoamerikatik zetorren. Gaur egun, berriz, portzentaje hori murrizten ari da pisu erlatiboan, eremu honetan inmigrazioaren ziklo berri honen hasieran finkatu ziren nazionalitateak naturalizatzen eta espainiar nazionalitatea eskuratzen ari direlako. Horregatik, aurreikus dezakegu datozen urteetan beherakada erlatibo hau biziagotu egingo dela. Ordea, ekarpen absolutua mantenduko da. Krisi ekonomikoko eta gizarte zalantzako fase berri honetan, inmigrazio fluxuak beherantz doituko dira. Horregatik, Latinoamerikako pertsonen naturalizazioak agian erritmo biziagoa izango du, edo gutxienez finkatze berriari gehiago egokituko zaio. Aitzitik, naturalizazioak atzerritartasun tasa murriztu arren, ez du dibertsitatea murrizten. Ildo horretan ikusten dugu magrebtar biztanleriak leku gehiago hartzen duela termino absolutuetan nahiz erlatiboetan, hasierako Europar Batasunean (EB-15) gertatzen denaren kontra. Komunitariorik berrienek (Errumaniakoek batez ere) osotasunean duten pisua gehitzen dute eta, Euskal AEko atzerritar nazionalitaterik garrantzitsuena izateaz gain, 2006an % 8 izatetik 2011n % 12 izatera igaro da. Gainera, Saharatik beherako pertsonen eta Asiako pertsonen gorakada txiki bat

entre las extranjeras de la C.A. de Euskadi, ha pasado de suponer el 8% en 2006 al 12% en 2011. Se aprecia también un ligero repunte de la población subsahariana y de la asiática. En esta última, si históricamente ha sido China la nacionalidad más relevante desde un punto de vista absoluto de aportación de personas inmigrantes, en los últimos años comienza a despuntar la población de nacionalidad pakistaní (tabla 4).

dago. Azken horretan, historikoki Txina garrantzitsuena izan da etorkinen ekarpenean ikuspegi absolutuan, baina azken urteetan pakistandarrek pisua hartu dute (4. taula).

*Evolución de la composición de la población extranjera de la C.A. de Euskadi por continentes y áreas geográficas de nacionalidad, números índice (Base 100 en 2011)*

4

***Euskal AEko atzerritar biztanleriaren osaeraren bilakaera, kontinenteen eta nazionalitateko eremu geografikoen arabera, indize-zenbakiak (100 oinarria 2011n)***

| | 2000 | 2002 | 2004 | 2006 | 2008 | 2010 | 2011 | 2011 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | **Kop. / Nº** | **(%)** |
| **Guztira /** Total | **14,6** | **26,6** | **40,9** | **59,2** | **81,2** | **96,4** | **100** | **144.551** | **100** |
| **Europa** | 23,6 | 29,8 | 39,9 | 58,9 | 87,9 | 98,9 | 100 | 40.304 | 27,9 |
| **EB-15 /** UE-15 | 48,8 | 56,2 | 61,0 | 77,6 | 98,0 | 104,4 | 100 | 17.395 | 12,0 |
| **EB-25 /** UE-25 | 18,7 | 30,8 | 44,6 | 61,4 | 90,1 | 101,2 | 100 | 1.297 | 0,9 |
| **EB-27 /** UE-27 | 1,3 | 4,8 | 17,5 | 40,0 | 79,8 | 94,3 | 100 | 17.266 | 11,9 |
| **Europako gainerakoak /** Resto Europa | 12,9 | 23,6 | 42,6 | 59,0 | 78,9 | 94,4 | 100 | 4.346 | 3,0 |
| **Afrika /** África | 12,0 | 22,0 | 34,4 | 46,2 | 62,7 | 90,1 | 100 | 32.381 | 22,4 |
| **Magreb** | 11,6 | 22,1 | 35,1 | 46,6 | 63,2 | 90,7 | 100 | 22.028 | 15,2 |
| **Saharatik behera /** Subsáhara | 12,9 | 21,7 | 33,1 | 45,3 | 61,7 | 88,9 | 100 | 10.353 | 7,2 |
| **Amerika /** América | 10,2 | 27,5 | 46,7 | 67,8 | 89,4 | 100,2 | 100 | 62.267 | 43,1 |
| **Iparramerika /** Norteamérica | 67,1 | 86,2 | 92,4 | 98,1 | 87,0 | 95,7 | 100 | 938 | 0,6 |
| **Latinoamerika /** Latinoamérica | 9,3 | 26,6 | 46,0 | 67,3 | 89,5 | 100,3 | 100 | 61.329 | 42,4 |
Hamar atzerritarretik zazpi baino gehiago alokatutako etxebizitzan bizi dira (% 63,4 familiaren alokairuan eta % 10,9 konpartitutako etxebizitzan). % 15ak etxebizitza jabetzan dauka, baina oraindik ez du ordaintzen amaitu. % 5,5ak etxebizitza ordaindu du. Azkenik, % 5,2 lagatako edo doako etxebizitza batean bizi da, 15. taula. Datuek egoera mailakatua erakusten digute: ordaindutako etxebizitzatik eta jabetzako etxebizitzatik lagatako edo doako etxebizitzaraino. Horrek pentsarazten digu zalantzarik gabeko finkaketa, bizileku baimenarekin eta lan erlatiboki egonkorrarekin, lortzen den neurrian, atzerriko biztanleriak bertako biztanleriaren harreman pauta bera duela etxebizitzarekin. Bizilekuko baimen iraunkorraren, lan egoera egonkorraren, hemen gelditzeko nahiaren eta beste faktore batzuen arteko lotune honek daukaguna baino espazio zabalagoa eskatzen digu. Halere, datuek erakusten digute egonkortasunaren continuuma bermatutako

todos a día de hoy, el *continuum* de estabilidad está adoptando una plausibilidad garantizada. Por orígenes el acceso a la propiedad es un hecho entre personas chinas y europeas occidentales, pero, si se analizan los datos de la vivienda comprada pero sin haberla pagado enteramente, veremos que hay todo un conjunto de nacionalidades que se suman progresivamente a la propiedad de la vivienda. El alquiler es el régimen mayoritario de un conjunto amplio de nacionalidades, entre las que sobresalen las nacionalidades de Argentina, Paraguay, Bolivia y Magreb. Por último, comparten significativamente más la vivienda todas las personas subsaharianas, ya que muchas de ellas o son solteras o mantienen a sus esposas en el país de origen, así como las bolivianas, paraguayas y rumanas, que presentan a veces una situación de inserción más precaria.

Si atendemos a las condiciones de la vivienda, el cien por cien dispone de todas las instalaciones y equipamientos básicos, casi un 20% plantea problemas de grietas y humedades, un 40,6% dispone de una superficie insuficiente y padece formas más o menos acusadas de hacinamiento y finalmente un 10% se ubica en un entorno de graves problemas sociales. Por orígenes nacionales no hay diferencias con respecto a equipamientos. Ahora bien, los mayores problemas con las condiciones generales de la vivienda y su salubridad las padecen las personas originarias de toda África y las bolivianas. Asimismo, una parte relevante de las personas extranjeras reside en viviendas de superficie insuficiente, en especial las africanas y algunas latinoamericanas.

onargarritasuna lortzen ari dela, nahiz eta gaur egun guztiontzat ez izan. Jabetza eskuratzea, jatorrien arabera, bermatuta dago txinatarren eta mendebaldeko europarren artean. Ordea, erositako baina guztiz ordaindu gabeko etxebizitzaren datuak aztertuz gero, ikusiko dugu nazionalitate asko ari direla etxebizitza jabetzan eskuratzen. Alokairua gehien zabaldutako aukera da nazionalitate askotan, besteak beste, Argentina, Bolivia eta Magreben. Azkenik, etxebizitza gehiago partekatzen dute Saharatik beherako pertsona guztiek. Izan ere, haietako asko ezkongabeak dira edo emaztea jatorrizko herrialdean daukate. Berdin gertatzen da boliviarrekin, paraguaitarrekin eta errumaniarrekin, batzuetan sartze egoera prekarioagoa daukatenak.

Etxebizitzaren baldintzak aztertzen baditugu, ehuneko ehunak oinarrizko instalazio eta ekipamendu guztiak dauzka. Ia % 20ak arrakalak eta hezetasuna dauzka, % 40,6ak azalera txikiegia du eta jende pilaketa handiagoa edo txikiagoa dauka, eta % 10 gizarte arazo larrietako ingurune batean dago. Jatorri nazionalen arabera ez dago ezberdintasunik ekipamenduei dagokienez. Baina etxebizitzaren baldintza orokorrekin eta haien osasuntasunarekin arazorik handienak dituzten pertsonak Afrika osotik eta Boliviatik datozen pertsonak dira. Era berean, atzerriko pertsona asko azalera txikiegiko etxebizitzetan bizi dira, batez ere afrikarrak eta Latinoamerikako batzuk.

*Población extranjera de la C.A. de Euskadi por origen y condiciones de la vivienda (%), 2010*

16

***Euskal AEko atzerriko biztanleria jatorriaren arabera eta etxebizitzaren baldintzen arabera (%). 2010***

| | **Ur beroaren instalazioa, instalazio elektrikoa, komuna eta bainu-ontzia edo dutxa** Instalación de agua caliente, instalación eléctrica, retrete y bañera-ducha | **Isolamendu arazoak, arrakalak itoginak, hezetasuna** Problemas de aislamiento, grietas, goteras, humedad | **Azalera txikiegia** Superficie insuficiente | **Gizarte arazo larriak etxe inguruan** Problemas sociales graves en entorno de vivienda |
|---|---|---|---|---|
| **Senegal** | 99,7 | 27,0 | 55,8 | 24,4 |
| **Magreb** | 98,6 | 17,7 | 52,5 | 8,8 |
| **Afrikako besteak /** Resto de África | 100,0 | 23,6 | 51,3 | 14,9 |
| **Bolivia** | 100,0 | 26,6 | 48,8 | 10,5 |
| **Kolonbia, Ekuador, Peru** Colombia, Ecuador, Perú | 99,5 | 16,4 | 47,9 | 11,9 |
| **Munduko besteak /** Resto del Mundo | 100,0 | 12,2 | 47,0 | 5,4 |
| **Txina /** China | 100,0 | 10,7 | 43,4 | 22,5 |
| **Paraguai /** Paraguay | 100,0 | 14,7 | 42,6 | 13,0 |
| **Argentina, Txile, Uruguai** Argentina, Chile, Uruguay | 100,0 | 13,5 | 32,8 | 8,5 |
| **Latinoamerikako besteak** Resto Latinoamérica | 100,0 | 16,4 | 31,7 | 2,1 |
| **Errumania eta EB ekialdeko besteak** Rumanía y otros UE Oriental | 99,2 | 26,3 | 31,2 | 10,6 |
| **Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.** Brasil, Venezuela, R. Dominicana | 97,6 | 19,2 | 27,6 | 11,7 |
| **EB mendebaldea /** UE Occidental | 98,4 | 19,0 | 20,8 | 11,1 |
| **Guztira /** Total | **99,3** | **19,1** | **40,6** | **10,7** |

**Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Euskal AEko Atzerriko Etorkinen Inkesta. 2010.**
Fuente: Dpto. de Empleo y Asuntos Sociales. Gobierno Vasco. Encuesta de Población Inmigrante Extranjera en la C.A. de Euskadi (EPIE). 2010.

Finalmente, las personas senegalesas, las chinas y las subsaharianas en general residen en ámbitos residenciales que experimentan graves problemas sociales en su entorno (tabla 16). En suma, aunque la vivienda no parece ser un gran impedimento para gran parte de la población extranjera, la africana señala un mayor número de situaciones de insalubridad y de hacinamiento, así como una ubicación con problemas y en un entorno desvalorizado. Esta última situación requiere de atención pública y de políticas urbanas de regeneración tanto urbanística como social, aunque esté circunscrita a la población africana. Además, no conviene olvidar, que una parte de ésta ya experimenta otro tipo de dificultades objetivas en el mundo de la inserción laboral –la subsahariana– y la otra un fuerte rechazo social –la magrebí–.

## 3.5. **Proyecto migratorio**

Las expectativas forman parte expresa de los proyectos inmigratorios y en consecuencia son parte sustancial de los procesos de integración. Son aspectos subjetivos que permiten afrontar e interpretar la dinámica objetiva de inserción e incorporación en la sociedad de destino, y la lectura que de esta experiencia se realice es fundamental en la subsiguiente acomodación.

En una investigación desarrollada por Ikuspegi en 2010 sobre salud y bienestar percibido, en la que se entrevistaba por las mismas cuestiones a personas autóctonas y extranjeras, se observaba que las últimas sostenían que podían contribuir positivamente a la sociedad vasca, aunque esta creencia no siempre concordaba con el control que decían detentar sobre la marcha del mundo. No obstante, la población extranjera tenía una visión más esperanzada sobre el devenir de éste que la nativa. Esta esperanza tiene que ver con las expectativas y con la interacción que se establece entre el punto de partida vital y los logros conseguidos. Es probable que las personas extranjeras interpreten su experiencia vital en la C.A. de Euskadi en términos de movilidad ascendente y, en cambio, los autóctonos como de situación estancada. Esta visión más esperanzada podemos observarla en el gráfico 15, en el que siempre se ve que la población inmigrante sostiene un mayor acuerdo con que la sociedad va mejorando para gente como ellos, que progresa y va mejor y que, en definitiva, es un lugar mejor para todos. El grado de confianza en la mejora de la sociedad es menos intenso entre los autóctonos, porque quien parte de mejor posición no termina de percibir la mejoría relativa y su sentido de privación es mayor; en cambio, la privación absoluta, aunque no demasiado intensa, caracteriza más a la personas inmigrantes, que valoran más los logros que las carencias al menos en las primeras fases de la migración.

Por nacionalidades, en la encuesta de Ikuspegi se observaba que esta creencia estaba más asentada entre los originarios de Bolivia, Colombia y las personas nacionales de países subsaharianos. En cambio eran más pesimistas las personas procedentes de Marruecos y Rumanía. El caso de los rumanos es paradójico al tratarse de ciudadanos de la UE. Quizás esta misma pertenencia y el hecho de no tener que reivindicar el reconocimiento administrativo, les lleva a sobrevalorar única o casi solamente la inserción laboral. Sea cual sea la razón, la población de nacionalidad rumana sentía una menor satisfacción que la media de población extranjera en los ámbitos del trabajo y de los ingresos. En cambio, es probable que en el resto de nacionalidades extranjeras, que han segui-

Azkenik, senegaldarrak, txinatarrak eta Saharatik beherako afrikarrak inguruan gizarte arazo larriak izan ohi dituzten lekuetan bizi dira (16. taula). Laburbilduz, etxebizitza ez da, itxuraz, eragozpen handia atzerritar askorentzat, baina afrikarrek osasuntasun gabeko eta pilaketako arazo gehiago izaten dituzte; gainera, arazoak dauden inguruetan bizi dira, balioa galdu duen ingurune batean. Azken arazo horrek arreta publikoa behar du eta hirigintza eta gizartea berriztatzeko hiri politikak eskatzen ditu, nahiz eta afrikarrei mugatuta egon. Gainera, ez dugu ahaztu gabe haietako askok bestelako eragozpen objektiboak dituztela: Saharatik beherakoen kasuan, laneratzean, eta magrebtarren artean, gizarte gaitzespen gogorra.

## 3.5. **Migrazio proiektua**

Espektatibak inmigrazio proiektuaren osagai bat dira, eta horregatik, integrazio prozesuen funtsezko faktorea dira. Alderdi subjektiboak dira, destino-gizartean sartzeko dinamika objektiboari aurre egiten eta interpretatzen laguntzen dutenak. Esperientzia horretaz egiten den irakurketa funtsezkoa da gero egokitzeko.

Ikuspegik 2010. urtean egin zuen ikerketan, atzemandako osasunari eta ongizateari buruz, arrazoi berberengatik bertako pertsonak eta atzerrikoak elkarrizketatu ziren. Ikerketan ikusi zen atzerritarrek uste zutela ekarpen positiboa egin ahal ziotela euskal gizarteari, baina sinesmen hori ez zetorren beti bat munduaren norabideaz zeukatela esaten zuten kontrolarekin. Hala eta guztiz ere, atzerriko biztanleriak ikuspegi itxaropentsuagoa zeukan munduari buruz bertakoek baino. Itxaropen horrek espektatibekin eta bizitzako abiapuntuaren eta erdietsitako lorpenen arteko elkarreraginarekin du zerikusia. Baliteke atzerriko pertsonek Euskal AEn bizi duten esperientzia goranzko mugikortasun gisa interpretatzea eta, autoktonoek, berriz, ez goranzko ez beheranzko egoera gisa. Ikuspegi itxaropentsuago hori 15. grafikoan ikus dezakegu. Atzerritarrek beti uste dute gizartea euren moduko jendearentzat hobetzen ari dela, aurrera doala eta hobetzen ari dela, eta finean, guztiontzat leku hobea dela. Gizartearen hobekuntzaren gaineko konfiantza maila ez da hain handia bertakoen artean. Izan ere, abiapuntu hobea duenak ez du hobekuntza erlatiboa atzematen, eta bere gabezi zentzua handiagoa da. Halere, erabateko gabezia, intentsuegia ez den arren, etorkinen ezaugarria da sarriago; etorkinek lorpenak gehiago baloratzen dituzte gabeziak baino, migrazioaren lehenengo faseetan behintzat.

Nazionalitateen arabera, Ikuspegiren inkestan ikusi da sinesmen hori finkatuago zegoela Boliviatik, Kolonbiatik eta Saharatik beherako herrialdeetatik datozen pertsonengan. Pesimistagoak dira, ordea, Marokotik eta Errumaniatik datozenak. Errumaniarren kasuan, paradoxikoa da, EBko herritarrak baitira. Agian EBko kide izateagatik eta administrazioaren onarpena aldarrikatu behar ez izateagatik laneratzea bakarrik edo ia bakarrik baloratzen dute. Arrazoia edozein izanik ere, errumaniar nazionalitatea daukaten pertsonak asebeteago daude atzerriko biztanleriaren batezbestekoa baino lanaren eta diru -sarreren eremuetan. Ordea, baliteke gainerako atzerriko nazionalitateetan, finkapen ibilbide ezberdina izan dutenak eta EBko eskubide osoko herritar ez direnak, lan egoera baino

*Expectativas de mejora de la sociedad en la C.A. de Euskadi y nacionalidad (%), 2010*

**15**

***Hobetzeko itxaropena Euskal AEko gizartean eta nazionalitatea (%), 2010***




**Iturria: Ikuspegi, 2010, Euskal Biztanleriaren Osasunari eta Ongizateari buruzko Inkesta.**
Fuente: Ikuspegi, 2010, Encuesta sobre Salud y Bienestar de la Población Vasca.

do una trayectoria de asentamiento diferente y que no son ciudadanas de la UE de pleno derecho, tanto o más que la situación laboral se valore la certidumbre jurídica. En resumen, de aquel estudio, se concluye que:

- A grandes rasgos, la población extranjera goza de muy buena salud, aunque es ligeramente mejor la declarada por la población nativa. La declarada por la población inmigrante indica que su asentamiento parece poco problemático y que probablemente supedita vivencias negativas a su situación objetiva de buena salud, dada su particular estructura de edad. Según nacionalidades, la población subsahariana tiende normalmente a situarse por encima de la media y por detrás de las nacionalidades latinoamericanas, pero por encima de rumanos y marroquíes. Muy probablemente contrarresta sus mayores dificultades objetivas de inserción con el fin perseguido por su proyecto migratorio, aplazando momentáneamente las gratificaciones.

- En general, la población autóctona se siente mejor que la población inmigrante, aunque el estado de ánimo de ésta es razonablemente alto: de hecho, ésta confiesa no haberse sentido molestada, mantiene una sólida red de amistades, declara tener control sobre su vida y se encuentra más alegre y divertida que triste y aburrida. Todo ello, en menor intensidad que la autóctona. No puede obtenerse una pauta universal para todas las cuestiones y sentimientos, pero las personas que globalmente más sentimientos positivos experimentan son los originarios de Colombia, y además en todos los apartados. En el polo opuesto, usualmente se encuentran las personas de Marruecos.

ziurtasun juridikoa baloratzea. Laburbilduz, ikerlanetik ondorio hauek atera ahal dira:

- Oro har, atzerritarrek oso osasun ona dutela, baina bertakoek aitortutakoa baino apur bat hobea. Etorkinek aitortutakoak erakusten du haien finkapena ez dela oso problematikoa eta ziurrenik osasun oneko egoera objektiboa bizipen negatiboei gailentzen zaiela, haien adin-egitura kontuan izanik. Nazionalitateen arabera, Saharatik beherako biztanleria batezbestekotik gora kokatu ohi da, eta Latinoamerikako nazionalitateen atzetik, baina errumaniarren eta marokoarren gainetik. Seguruenik, gizarteratzeko zailtasun objektibo handiagoak dauzkaten arren, beraien migrazio proiektuak duen helburuarekin konpentsatzen dute, saria aldi baterako atzeratuz.

- Oro har, bertako biztanleak etorkinak baino hobeto sentitzen dira, baina etorkinen gogo-aldartea nahiko ona da: hain zuzen ere, etorkinek esaten dute inork ez diela min ematen, lagun sare sendoa dutela, beren bizitza kontrolatzen dutela, eta alaiago eta jostariago daude triste eta aspertuta baino. Hori guztia, bertakoak baino intentsitate txikiagoarekin. Ezin dezakegu gai eta sentimendu guztietarako pauta unibertsala atera, baina oro har sentimendu positibo gehien dituztenak Kolonbiatik datozenak dira, eta gainera atal guztietan. Aurkako muturrean, Marokoko pertsonak egon ohi dira.

- Tanto entre autóctonos como entre inmigrantes, los elementos más materiales ligados a la economía (el estatus, los ingresos, la relación con la actividad) junto con elementos más subjetivos pero también relacionados con la economía (el nivel de satisfacción con la situación económica) son los que más notablemente inciden en el grado de satisfacción global. De alguna forma, la posesión de un suelo sólido en los ámbitos económico y laboral, o en el nivel de estudios, permiten abrigar un grado mayor de control de la vida, así como de posibilidad de desarrollar un nivel superior de satisfacción. En cambio, cuando este suelo es incierto decae notablemente el grado de satisfacción global.

- La satisfacción es mayor en las dimensiones basadas en las interacciones personales o en la posesión de redes sociales (familia, amigos, relación con uno mismo) que en las dimensiones relacionadas con los ingresos o el trabajo.

- Tanto autóctonos como extranjeros se muestran convencidos del valor de su aportación a la sociedad o al mundo mediante su quehacer cotidiano. En este apartado las personas extranjeras puntúan más su aportación que las autóctonas. Ahora bien, ni unas ni otras presentan un convencimiento notorio sobre su comprensión y capacidad de predecir el devenir del mundo.

- Las personas extranjeras tienen un mayor convencimiento que las nativas en que la sociedad va mejorando para gente como ellas, que progresa y va mejor y que, en definitiva, es un lugar mejor para todos.

En la Encuesta de Población Inmigrante Extranjera (EPIE, 2010) (gráfico 16) también se ha detectado que es importante la dimensión proyectiva del proyecto inmigratorio, y si se

- Bai bertakoen bai etorkinen artean, ekonomiari lotutako osagai materialenak (estatusa, diru-sarrerak, jarduerarekiko harremana) eta subjektiboagoak diren baina ekonomiari lotuta dauden elementuak (egoera ekonomikoarekiko asebetetasun maila) asebetetasun orokorreko mailan eragin handiena dutenak dira. Nolanahi, eremu ekonomikoan eta lanekoan, edo ikasketa mailan, zoru sendoa edukitzeak bizitzaren kontrol maila handiagoa izatea ahalbideratzen du, baita asebetetasun maila handiagoa garatzeko aukera ere. Aitzitik, zoru hori ziurra ez denean, asebetetasun orokorreko maila nabarmen murrizten da.

- Asebetetasuna handiagoa da interakzio pertsonaletan edo gizarte sareak (familia, lagunak, norbere buruarekiko harremanean) edukitzean oinarritzen diren dimentsioetan, diru-sarrerekin edo lanarekin zerikusia duten dimentsioetan baino.

- Bertakoak nahiz atzerritarrak konbentzituta daude gizarteari edo munduari egiten dioten ekarpenaren balioaz, beren eguneroko lanean. Atal honetan, atzerriko pertsonek beren ekarpena autoktonoek baino gehiago puntuatzen dute. Halere, ez batzuek ez besteek ez daukate konbentzimendu argirik munduaren etorkizuna ulertzeari eta aurresateko gaitasunari buruz.

- Atzerriko pertsonek konbentzimendu handiagoa dute bertakoek baino gizartea euren moduko pertsonentzat hobetzen ari dela, aurrera eta hobera doala eta, finean, denontzat leku hobea dela.

Atzerriko Etorkinen Inkestan, 2010, 16. grafikoa, atzeman dugu inmigrazio proiektuaren dimentsioa ere garrantzitsua dela. Iraganeko eta gaur egungo asmoen artean izan den

*Población extranjera de la C.A. de Euskadi y expectativas del proyecto migratorio (%), 2010*

**16**

***Euskal AEko atzerritar biztanleria eta migrazio proiektuaren espektatibak (%), 2010***




**Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Euskal AEko Atzerriko Etorkinen Inkesta. 2010.**
Fuente: Dpto. de Empleo y Asuntos Sociales. Gobierno Vasco. Encuesta de Población Inmigrante Extranjera en la C.A. de Euskadi (EPIE). 2010.

analiza el cambio que se ha operado entre las intenciones pasadas y presentes, se observa que si inicialmente un 38% de la población extranjera de la C.A. de Euskadi aspiraba a aprovisionarse del suficiente dinero o a coronar con éxito un proyecto educativo para luego retornar, en la actualidad este porcentaje ha descendido al 25,4%. Este descarte relativo de la idea de retorno se refuerza con que ha pasado del 38,5% al 51,5% el porcentaje de quienes piensan su proyecto migratorio como un medio para iniciar una nueva vida, sea en otro país, sea en otra comunidad autónoma, o consiste en seguir residiendo en la C.A. de Euskadi. Es decir, decae la idea de retorno, pero simultáneamente crece la de re-emigración. En cambio, no varía el porcentaje de quienes ven en la ayuda a la familia el motivo del proyecto migratorio.

Este replanteamiento parcial del proyecto migratorio se plasma igualmente en las respuestas a la pregunta de cuáles son sus intenciones en los próximos cinco años o a más largo plazo. Ante la primera opción, el 88,8% de las personas extranjeras afirma que su intención radica en mantener su residencia en la C.A. de Euskadi. Ante la segunda, este porcentaje sigue siendo altísimo, el 73,7%. Estamos, pues, ineludiblemente, ante una inmigración de asentamiento y de residencia, realidad ante la que debemos acostumbrarnos, sin pensar en lógicas hidráulicas de ajuste perfecto de flujos o de *trabajadores invitados*.

Por países de origen (tabla 17) se observan unos datos muy interesantes que expresan que quizás gran parte de la dinámica de la integración se produce en sus dimensiones más cotidianas, en la normalidad de la cotidianeidad y en ésta es básica la esperanza de que el futuro transcurra más o menos por los mismos raíles que les han traído hasta el presente.

aldaketari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu hasiera batean Euskal AEko atzerritarren % 38ak dirua irabazi nahi zuela edo hezkuntza proiektua amaitu nahi zuela gero beren herrira itzultzeko; gaur egun, portzentaje hori % 25,4ra jaitsi da. Etorkinetako batzuek itzultzeko ideia bertan behera uztea beste datu batekin indartzen da: migrazio proiektua bizitza berria hasteko (beste herrialde batean, beste autonomi erkidegoan edo Euskal AEn bizitzen) bitartekoa dela pentsatzen dutenen portzentajea % 38,5etik % 51,5era igo da. Hau da, itzultzearen ideiak atzera egiten du, baina berriro emigratzearena areagotzen da aldi berean. Ordea, migrazio proiektuaren arrazoia familiari laguntzea dela uste dutenen portzentajea ez da aldatu.

Migrazio proiektuaren birplanteamendu partzial hau beste galdera batean ere islatzen da: datozen bost urteetan edo epe luzeagoan zeintzuk diren etorkinen asmoak. Lehenengo aukerari erantzunez, atzerritarren % 88,8ak erantzuten du beraien asmoa Euskal AEn bizitzen jarraitzea dela. Bigarren aukerari erantzutean ere, portzentajea oso altua da: % 73,7. Beraz, hemen finkatzera eta bizitzera datorren inmigrazioa daukagu. Errealitate hori barneratu behar dugu, fluxuen egokitze perfektuko edo *gonbidatutako langileen* logika hidraulikoetan pentsatu gabe.

Jatorrizko herrialdeen arabera, 17. taula, oso datu interesgarriak ikus ditzakegu. Datu horiek erakusten dute agian integrazioaren dinamikaren zati handi bat egunerokoenak diren dinamiketan gertatzen direla, egunerokotasunaren normaltasunean alegia, eta horretan funtsezkoa da etorkizuna orainaren antzeko bideetan joateko itxaropena izatea. Hain zuzen

*Voluntad de permanecer en la C.A. de Euskadi por sexo y áreas de nacionalidad (%), 2010*

**17**

***Euskal AEn egoteko borondatea, sexuaren eta nazionalitate eremuaren arabera (%), 2010***

| | **Datozen 5 urteetan /** En los próximos 5 años | | **Epe luzeagoan /** A más largo plazo | |
|---|---|---|---|---|
| | **Gizonak** Hombres | **Emakumeak** Mujeres | **Gizonak** Hombres | **Emakumeak** Mujeres |
| **EB mendebaldea /** UE Occidental | 91,0 | 91,5 | 78,9 | 82,4 |
| **Errumania eta EB ekialdeko beste batzuk** Rumanía y otros UE Oriental | 89,2 | 84,5 | 72,6 | 62,6 |
| **Magreb** | 86,1 | 98,2 | 77,2 | 88,6 |
| **Argentina, Txile, Uruguai** Argentina, Chile, Uruguay | 93,9 | 88,9 | 86,6 | 74,4 |
| **Kolonbia, Ekuador, Peru** Colombia, Ecuador, Perú | 89,6 | 82,5 | 70,3 | 74,6 |
| **Bolivia** | 88,6 | 87,8 | 58,8 | 64,4 |
| **Paraguai /** Paraguay | 88,1 | 79,7 | 68,9 | 59,6 |
| **Brasil, Venezuela Dominikar Errep.** Brasil, Venezuela, R. Dominicana | 99,7 | 86,3 | 93,2 | 81,4 |
| **Latinoamerikako besteak** Resto Latinoamérica | 84,8 | 88,8 | 68,2 | 69,7 |
| **Txina /** China | 89,2 | 90,1 | 69,4 | 74,4 |
| **Senegal** | 92,1 | 73,4 | 68,1 | 46,3 |
| **Afrikako besteak /** Resto de África | 100,0 | 94,2 | 89,1 | 75,1 |
| **Munduko besteak /** Resto del Mundo | 88,6 | 84,8 | 71,3 | 58,4 |

**Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Euskal AEko Atzerriko Etorkinen Inkesta. 2010.**
Fuente: Dpto. de Empleo y Asuntos Sociales. Gobierno Vasco. Encuesta de Población Inmigrante Extranjera en la C.A. de Euskadi (EPIE). 2010.

Así, es voluntad casi universal de los hombres extranjeros permanecer en la C.A. de Euskadi en los próximos cinco años. En el caso de las mujeres, estos porcentajes son menores por término medio y especialmente en algunas nacionalidades como Paraguay o Senegal, cuyas mujeres acusan unas, las paraguayas, el reciente asentamiento y otras, las senegalesas, la dificultad de su inserción laboral. Pero, por el contrario, también podríamos reparar en la enorme diferencia a favor de permanecer de las mujeres del Magreb, tanto en el corto plazo de cinco años como en el largo, que indica que los procesos migratorios también están compuestos de sueños o como diría Ensenzberger que «nadie emigra sin que medie el reclamo de alguna esperanza».

ere, Euskal AEn bizi diren atzerritar gizon ia guztiek Euskal AEn jarraitu nahi dute bizitzen datozen bost urteetan. Emakumeen kasuan, portzentajeak batez beste txikiagoak dira, batez ere nazionalitate jakin batzuetan, Paraguai eta Senegal adibidez. Nabaritzen da Paraguaiko emakumeak orain dela gutxi finkatu direla hemen eta Senegalekoek laneratzea zaila dutela. Baina Magrebeko emakume askok hemen jarraitzeko asmoa daukate, bai bost urteko epean, bai epe luzean. Horrek erakusten digu migrazio prozesuak ametsez ere osatzen direla; Ensenzbergerrek esan zuenez, «inork ez du emigratzen nolabaiteko itxaropenik ez badauka».

## 4. CONCLUSIONES

El fenómeno inmigratorio en la C.A. de Euskadi ha transcendido la fase de sorpresa y se ha transformado en elemento constitutivo de su realidad, y como tal ha de ser confrontado. El hecho inmigratorio experimenta en la C.A. de Euskadi una inserción más lenta, acorde a su estructura productiva, con menor presencia de mano de obra intensiva y, en términos de Miguel Laparra, con un *potencial integrador* menos poroso que el de otras comunidades autónomas. En la C.A. de Euskadi, los patrones son en parte asimilables a los de la cornisa cantábrica, que se mueve en tasas y pautas de composición muy similares.

Si recurrimos al término de *inmigración preferida*, es manifiesto que la C.A. de Euskadi selecciona la población latinoamericana y, dentro de ésta, a la mujer. Una de cada cuatro personas extranjeras residentes en la C.A. de Euskadi concuerda con este perfil de mujer latinoamericana. De alguna manera, la C.A. de Euskadi puede ser representada como un modelo de sociedad de clases medias, con fuerte incorporación de la mujer autóctona al mercado del empleo, con manifiestas disfunciones demográficas y que requiere ineludiblemente de personas extranjeras para la cobertura del cuidado. Más que de *efecto llamada* conviene hablar de *efecto necesidad*. Sólo desde ahí, se entiende que las grandes nacionalidades de asentamiento y sustitución de las previamente agotadas, estén cada vez más feminizadas en su composición interna que las precedentes.

Este modelo de inmigración requiere una atención preferente desde la C.A. de Euskadi, porque es una inmigración de asentamiento y que precisa garantizar los procesos de reagrupación familiar. Desde un plano más global y estructural, estamos ante grandes cadenas transnacionales de afecto, pero sobre todo de desigualdad, porque el efecto cascada o dominó es una vez más la mujer la que hace frente a la cobertura de necesidades sociales mundiales no cubiertas por políticas sociales. Afrontar este entramado de nuevas realidades sociales y erigir políticas institucionales acordes a los dilemas planteados debe ser una exigencia en el corto y medio plazo en la C.A. de Euskadi. Es una mala solución hacer recaer en la mujer inmigrante y en su precariedad vital la salida ante tan decisivo problema de cara a la cohesión social de la sociedad vasca.

Los datos que se aportan en este informe nos hablan de que hay bases suficientes para que tal cohesión sea posible. Por un lado, la inmigración extranjera experimenta con altibajos coyunturales un proceso de normalización o de inserción relativamente estable en el *continuum de estabilidad*: es inexistente el volumen de personas no empadronadas, se va solidificando el volumen y porcentaje de personas con permiso de residencia, aunque en algunos casos todavía es inestable, empieza a acelerarse el proceso de nacionalización, básicamente de la población latinoamericana, y es ínfima la tasa de irregularidad sobrevenida. Es cierto que este panorama puede empeorar en una coyuntura de crisis económica sostenida, pero también lo es que gran parte de las necesidades de población extranjera de la C.A. de Euskadi son igualmente sostenidas. Lo sostenido debe ser sostenible.

Asimismo, las dinámicas de integración indican que es hora de afrontar la lógica del asentamiento y permanencia de la población extranjera en la C.A. de Euskadi, pasar del *autobús* (acogida) al *ascensor* (movilidad ascendente) en acertados

## 4. ONDORIOAK

Euskal AEko inmigrazioaren fenomenoak ustekabearen fasea gainditu du eta gure errealitatearen osagai bihurtu da; hala denez, aurre egin behar zaio. Inmigrazioak sartze motelagoa dauka Euskal AEn, bere egitura produktiboagatik. Lan-esku intentsibo gutxiago dago eta, Miguel Laparraren hitzetan, hemengo *potentzial integratzailea* ez da beste autonomi erkidego batzuetakoa bezain porotsua. Euskal AEko patroiak kantauriar erlaitzarenak, neurri batean, berdinak dira, konposizio tasak eta pautak oso antzekoak baitira.

*Nahiago den inmigrazioa* terminoa erabiltzen badugu, argi dago Euskal AEk latinoamerikar biztanleria aukeratzen duela, eta bereziki, emakumeak. Euskal AEn bizi diren lau atzerritarretatik bat latinoamerikar emakumea da. Era berean, Euskal AE klase ertainen gizarte eredua dela esan dezakegu. Bertako emakumeak enpleguaren merkatuan oso sartuta daude, disfuntzio demografiko nabariak daude, eta nahitaez atzerritar pertsonak behar dira zaintza lanak egiteko. *Dei efektua* baino, *beharrizan efektua* aipatu behar genuke. Horrela bakarrik ulertzen dugu agortutako nazionalitateak ordezkatzen dituzten eta hemen finkatzen diren nazionalitate handiak gero eta feminizatuago egotea beren barne osaeran, aurreko nazionalitateen aldean.

Inmigrazio eredu honek lehentasunezko arreta eskatzen du Euskal AEtik, finkapen inmigrazioa delako eta familia birbatzeko prozesuak bermatzea eskatzen duelako. Ikuspegi globalago eta estrukturalago batetik, afektuzko nazio arteko kate handien aurrean gaude, baina batez ere ezberdintasun kate bat da. Izan ere, kaskada edo domino efektuan, gero eta kasu gehiagotan da emakumea gizarte politikek asetzen ez dituzten munduko gizarte premiak betetzen dituztenak. Gizarte errealitateen bilbe honi aurre egitea eta planteatutako dilemen araberako politika instituzionalak abiatzea exijentzia bat izan behar da Euskal AEn, epe ertainean eta epe luzean. Oso konponbide txarra da emakume etorkinari ordainaraztea arazo larri honen konponbidea, haren bizitza prekarioago bihurtuz, euskal gizartearen gizarte kohesioaren mesedetan.

Txosten honek eskaintzen dituen datuek erakusten digute kohesio hori gauzatu ahal izateko oinarria badagoela. Batetik, atzerriko inmigrazioak, normalizazio edo gizarteratze prozesu nahiko egonkorra bizi du, abaguneko gorabeherekin, *egonkortasunaren continuum*ean: ez dago erroldatu gabeko pertsonarik, bizileku baimena daukaten pertsonen bolumena eta portzentajea sendotzen ari dira, kasu batzuetan oraindik ere egonkorra ez den arren, nazionalizazio prozesua azkartzen hasi da, batez ere latinoamerikarren artean, eta gertaerabidezko irregulartasunaren tasa oso txikia da. Egia da panorama hau okertu egin daitekeela, krisi ekonomiko iraunkorraren testuinguruan, baina esan dezakegu Euskal AEko atzerriko biztanleen beharrizanetako asko ere iraunkorrak direla. Iraunkorra dena iraun ahal izateko moduan egon behar da.

Era berean, integrazio dinamikek erakusten digute atzerritar biztanleria EAEn finkatzeko eta irauteko logikari aurre egin behar diogula. *Autobusetik* (harrera) *igogailura* (goranzko mugikortasuna) igaro behar dugu, Gorka Morenok ederki azaldu

términos de Gorka Moreno, y plantear algunos retos con una cierta premura. El momento es el más propicio, porque a falta de flujos voluminosos de inmigración como los de la década pasada, es más fácil atender a la realidad presente: no estamos ante un permanente nuevo comienzo. Entre los retos más importantes, podemos señalar: 1) la dificultad de inserción laboral de la población africana y, en especial, de la mujer africana; 2) la segunda generación o los hijos e hijas de la inmigración, que no necesariamente hacen suyos los costes de la migración de sus padres; 3) la atención preferente a las trayectorias educativas de esta segunda generación, y, finalmente, 4) los problemas de desconexión o de falta de interacción de determinados colectivos con la sociedad de recepción.

En suma, no debe dejarse de indicar que con altibajos la incorporación de la población extranjera está siendo más normalizada de lo que los hechos económicos del momento podrían hacer pensar y que junto a elementos preocupantes en el ámbito laboral, hay otros más esperanzadores en el de la regularización administrativa, en la seguridad de desarrollar proyectos migratorios con cierta garantía, independientemente de que socialmente los discursos sociales sean cada vez insistentes en relación a los supuestos efectos negativos que acarrea la inmigración en la sociedad vasca.

Con los datos disponibles, nos parece que en los próximos años se mantendrá la aportación de la población inmigrante y que su composición estará en consonancia con las necesidades de la población vasca y, finalmente, no debemos minusvalorar los importantes datos que suministra la población extranjera sobre su concreta situación de satisfacción, integración y voluntad de permanencia. Es verdad que la perspectiva sociológica tiene una visión normalizadora y panorámica y que, por el contrario, la gestión cotidiana de la inmigración detecta múltiples fuentes de discriminación, más o menos sutil, pero la escucha de los relatos y sueños de sus protagonistas no debe caer en saco roto, porque son en suma elementos estratégicos y constituyentes de la situación.

zuenez, eta zenbait erronka premiaz planteatu. Une hau egokiena da. Ez dago inmigrazio fluxu handirik, joan den hamarkadan gertatu zenez, eta horregatik gaur egungo errealitateari aurre egitea errazagoa da: ez gaude hasiera berri etengabe baten aurrean. Erronkarik garrantzitsuenen artean, hauek aipa ditzakegu: 1) afrikar biztanleriak laneratzeko dituen zailtasunak, batez ere emakumeen kasuan; 2) etorkinen seme-alabak, hau da, bigarren belaunaldia, beren gurasoen migrazioaren kostuak nahitaez bereganatzen ez dituztenak; 3) bigarren belaunaldi honen hezkuntza ibilbideen lehentasunezko arreta; eta 4) kolektibo batzuek harrera-gizartearekin dituzten deskonexioko edo interakzio gabeziako arazoak.

Laburbilduz, esan behar dugu, gorabeherekin bada ere, atzerritarren gizarteratzea normalagoa izaten ari dela gaur egungo egoera ekonomikoak pentsaraziko ligukeena baino. Lan-eremuan alderdi kezkagarriak badaude ere, badira elementu itxaropentsuak ere, administrazio erregularizazioan eta migrazioko proiektuak nolabaiteko bermearekin garatzeko segurtasunean, nahiz eta gizarte diskurtsoek gero eta gehiagotan azpimarratu inmigrazioak euskal gizarteari ondorio negatiboak dakarzkiola.

Dauzkagun datuak edukita, uste dugu datozen urteetan etorkinen ekarpena mantenduko dela eta atzerriko biztanleriaren osaera euskal gizartearen premien araberakoa izango dela. Azkenik, ez ditugu gutxietsi behar atzerriko biztanleriak bere gogobetetzeaz, integrazioaz eta hemen geratzeko borondateaz ematen dituen datu garrantzitsuak. Egia da ikuspegi soziologikoak ikuspegi normalizatzailea eta panoramikoa daukala eta inmigrazioaren eguneroko kudeaketak, berriz, bazterketa iturri asko, agerikoak edo ez hain agerikoak, atzematen dituela. Baina kontakizun horiek entzun behar dira eta protagonisten ametsak kontuan izan behar dira, elementu estrategikoak eta egoera osatzen duten osagaiak direlako.

## BIBLIOGRAFÍA


ALTER. GRUPO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL. *Encuesta 2008. Inmigración en Navarra*, Gobierno de Navarra / Upna, Pamplona, 2009.

CASTLES, S. y MILLER, M. J. *La era de la migración*, Universidad Autónoma de Zacatecas, México, 2004.

INFORME OCDE. *Perspectivas de las migraciones internacionales 2008*, Ministerio de Trabajo e Inmigración, Madrid, 2009.

MORENO, G. y AIERDI, X. (coords.). *Anuario de la inmigración en el País Vasco 2010*, Ikuspegi, Bilbao, 2011.

OIM. ORGANIZACIÓN INTERNACIONAL PARA LAS MIGRACIONES. *Comunicar eficazmente sobre la migración. Informe sobre migraciones en el mundo 2011*, OIM, Ginebra, 2011.

INFORME FOESSA. *VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*, Cáritas, Madrid, 2009

OEE. ÓRGANO ESTADÍSTICO ESPECÍFICO, EPIE. *Encuesta de la población inmigrante extranjera residente en la Comunidad Autónoma de Euskadi. EPIE, 2010*, Informe final de 5 de octubre de 2011, Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, Gobierno Vasco.


## BIBLIOGRAFIA


ALTER. GRUPO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL. *Encuesta 2008. Inmigración en Navarra*, Nafarroako Gobernua / Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2009.

CASTLES, S. eta MILLER, M. J. *La era de la migración*, Universidad Autónoma de Zacatecas, Mexiko, 2004.

ELGA TXOSTENA. *Perspectivas de las migraciones internacionales 2008*, Lan eta Inmigrazio Ministerioa, Madril, 2009.

MORENO, G. eta AIERDI, X. (koord.). *Anuario de la inmigración en el País Vasco 2010*, Ikuspegi, Bilbo, 2011.

MNE, MIGRAZIOEN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA. *Comunicar eficazmente sobre la migración. Informe sobre migraciones en el mundo 2011*, MNE, Geneva, 2011.

FOESSAren TXOSTENA. *VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*, Cáritas, Madril, 2009

EOB. ESTATISTIKA ORGANO BEREZIA. *Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar etorkinen inkesta, 2010*, 2011ko urriaren 5eko behin betiko txostena, Eusko Jaurlaritzako Laneko eta Gizarte Gaietako Saila.